



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Espainiako Historia

USE 2024

www.ehu.eus



ESPAINIAKO HISTORIA

HISTORIA DE ESPAÑA

***Proposatutako lau ariketa hauetako Biri erantzun behar diezu.
Ez ahaztu azterketa-orrialde bakoitzean kodea jartzea.***

Proba idatzi honek 4 ariketa ditu. Ariketak bi multzotan banatuta daude:

A Multzoa: bi gai ditu, eta bati erantzun behar diozu.

B Multzoa: bi testu-iruzkin ditu, eta bati erantzun behar diozu.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Zuzenketa- eta kalifikazio-irizpide espezifikoak:

1. Gaia: 5 puntu. Irizpide hauen arabera kalifikatuko da gaia:
 - a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 1 p.
 - b. Kontzeptu eta hiztegi espezifikoak ondo erabiltzea: 1 p.
 - c. Gaia bere testuinguruan jartzea: 3 p.
2. Testu-iruzkina: 5 puntu. Irizpide hauen arabera kalifikatuko da testua:
 - a. Testuaren kokapena (testu mota, egilea, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
 - b. Testuaren analisia: testuaren oinarriko ideiak nabarmentzea: 1,5 p.
 - c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2,5 p.
 - d. Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko OHIKOA

ESPAINIAKO HISTORIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2024

HISTORIA DE ESPAÑA

A MULTZOA: Gaiak

(Garatu gai hauetako BAT)

A1. GAIA: ERRESTAURAZIOKO SISTEMA POLITIKOA (1875-1923): 1. Sistemaren oinarriak: 1876ko Konstituzioa eta kazikismoa. 2. Sistemaren eta oposizioaren indarrak. 3. 1898, 1909 eta 1917ko krisialdiak eta haien ondorioak.

A2. GAIA: BIGARREN ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA EUSKAL HERRIAN (1931-1939): 1. Indar politikoak eta Euskal Estatutua lortzeko prozesua. 2. Lehen Euskal Gobernua. 3. Euskal Herria frankista Gerra Zibilean.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko OHIKOA

ESPAINIAKO HISTORIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2024

HISTORIA DE ESPAÑA

B MULTZOA: Testu-iruzkina

(Iruzkindu testu hauetako BAT)

B1. TESTU-IRUZKINA: 1876KO UZTAILAREN 21EKO LEGEA:

Alfontso XII.a Jainkoaren graziaz Espainiako Errege konstituzionala denak honako hau ikusi eta ulertzen duzuen guztioi zera jakinarazten dizue: Gorteen honako hau agindu dutela eta nik berretsi dudala:

1. artikulua. Legeak deitutakoan arma zerbitzura joateko eta norberaren ondasunen proportzioan Estatuko gastuetan laguntzeko betebeharrak ezarri dizkie Konstituzio politikoak espainiar guztiei, eta betebeharrak horiek, eskubide konstituzionalak diren heinean, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako biztanle guztiei ezarriko zaizkie, Nazioko gainerako biztanleei bezalaxe.
2. artikulua. Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatutako hiru probintziak behartuta daude (...), kintoetan eta ejertzitoko garai arruntetan eta berezietan, Legeen arabera dagokien gizon kopurua aurkeztera.
3. artikulua. Era berean, (...) Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako probintziak behartuta daude Estatuko aurrekontu orokorretan esleitutako kontribuzio, errenta eta zerga arrunt eta bereziak ordaintzera, dagokien proportzioan, gastu publikoetarako.
4. artikulua. Gobernuari baimena ematen zaio, dagokion egunean Gorteei berri emanaz eta 1837ko irailaren 19ko eta 1841eko abuztuaren 16ko legeak eta urte bereko urriaren 29ko dekretua kontutan hartuz, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintzien onespenearekin, egokitzat jotzen badu, euskal herrien ongizateak nahiz nazioaren gobernu onak eta segurtasunak eskatzen dituzten erreformak haien foru-araubide zaharrean adosteari ekiteko.

Jauregian, 1876ko uztailaren 21ean.- Nik, Erregeak- Antonio Cánovas del Castillo Ministro Kontseiluko Presidenteak.

Gaceta de Madrid, 1876ko uztailaren 25ean.



B2. TESTU-IRUZKINA: EUOPAR MUGIMENDUAREN KONGRESUAK 118 ORDEZKARI ESPAINIARREN PROPOSAMENEZ MUNICHEN HARTUTAKO ERABAKIA (1962-06-07/08):

Europar Mugimenduaren Kongresuak, Munichen 1962ko ekainaren 7an eta 8an bilduta, iritzi dio ezen, edozein herrialdek Europan sartu nahi badu, izan atxikita edo izan elkartze bidez, herrialde horrek erakunde demokratikoak izan beharko dituela; horrek, Espainiaren kasuan, Gizakiaren Eskubideei buruzko Europar Konbentzioaren eta Europako Gizarte Gutunaren arabera, hau esan nahi du:

1. Benetan ordezkari bidezkoak eta demokratikoak diren erakundeak eratzea, zeintzuek bermatzen baitute gobernu herritarren onespenean oinarritzen dela.
2. Pertsonen eskubide guztiak egiazki bermatzea; bereziki, norberaren askatasunari eta adierazpen-askatasunari buruzkoak, gobernuaren zentsurarik gabe.
3. Erkidego naturalen izaera berezia aitortzea.
4. Askatasun sindikalak oinarri demokratikoen gainean baliatu ahal izatea eta langileek beren oinarritzko eskubideak defendatu ahal izatea; besteak beste, greba-eskubidearen bidez.
5. Iritzi-korronteak eta alderdi politikoak antolatzeko aukera izatea, oposizioaren eskubideak aitortuta.

Kongresuak itzaropen sendoa du aurreko oinarri horien arabera eboluzioak aukera emango duela Espainia Europan sartzeko, haren funtsezko osagaia baita; eta adierazgarritzat dauka Kongresuan partaide izan diren espainiar ordezkari guztiek adierazi izana seguru daudela espainiar ordezkari gehienek nahi dutela eboluzio hori zuzentzea politikoen arauen arabera egitea, egoerak aukera ematen duen bezainbesteko azkartasunarekin, denen zintzotasunarekin eta eboluzio-prozesuaren aurretik, prozesuan bertan nahiz prozesuaren ondoren bortxakeria aktibo nahiz pasiboari uko egiteko konpromisoarekin.

Munich (Alemaniako Errepublika Federala), 1962ko ekainaren 8a.



Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioan testu historikoen iruzkina egiteko eskema

A. Testuaren kokapena eta sailkapena (0,5 puntu)

Testu mota: juridikoa (konstituzioak, legeak, dekretuak, erregelamenduak...), narratiboak (manifestuak, proklamak, diskurtsoak, txostenak...), kazetaritzakoak (prentsa artikulua), gutunak, literatur lanak (memoriak, nobelak...), historiografikoak (historialarien lanak).

Egilea: indibiduala edo kolektiboa; eman azalpen labur bat.

Hartzailea: indibiduala edo kolektiboa; eman azalpen labur bat.

Une historikoa: kokatu testua dagokion Aro Garaikideko etapan.

B. Testuaren analisia (1,5 puntu)

Azaldu testuaren edukia, kontuan harturik zer dioten: pertsonak, erakundeak, gertaerak, datak, lekuak...

Nabarmendu testuaren oinarritzko ideiak, aintzat harturik hurrenkera literala (paragrafoen arabera edo, testu juridikoen kasuan, artikuluen arabera) edo logikoa, elkarri lotutako ideiak taldekatuz.

Helburua da edukia azaltzea edo interpretatzea, eta testuan agertzen dena beste hitz batzuekin ez errepikatzea.

C. Testuinguruan kokatzea (2,5 puntu)

Atal garrantzitsuena da. Helburua da testua prozesu historikoan kokatzea, bere testuinguru historikoan, haren garrantzia ulertzeko, denbora horri buruzko ezagutzak aplikatuz testuari lotuta. Horrek ez du aitzakia izan behar gai bat garatzeko testutik deskonektatuta.

Testuinguruan koka daiteke bereiziz aurrekariak, gertaeren garapena eta haien ondorioak, edo bereiziz faktore koiunturalak (berehalakoak) eta egiturazkoak (sakonak).

Testuaren arabera, **atal hau oinarritu daiteke denbora labur edo koiuntura** batean (Independentzia Gerra, II. Errepublika, Trantsizioa) edo zenbait hamarralditako **denbora ertain** batean (Estatu liberala, Errestaurazioa, Diktadura frankista).

D. Testuaren garrantzia (0,5 puntu)

Nabarmendu testuak bere garai historikoa ulertzeko duen garrantzia edo interesa. Testuaren balorazio kritiko bat egin daiteke: haren objektibitatea, betetze maila...



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Bibliografía gomendatua

- Egidio León, Ángeles (koord.): *La historia contemporánea en la práctica. (Textos escritos y orales, mapas, imágenes y gráficos comentados)*. Editorial Centro de Estudios Ramón Areces, Madril, 1996, 13-20 eta 205-234. orrialdeak bereziki.
- Moradiellos, Enrique: *El oficio de historiador. Estudiar, enseñar, investigar*. Akal, Madril, 2013, 209-234. orrialdeak bereziki.

2024